

Indarra dizu oiturak ere,  
arritzekoa ez zaizu:  
iñor jatunik ba dugu biran  
gu ere gaitu zaletu;  
—eta pozarren, pozarren,  
ardoa edaten—,  
gu ere gaitu zaletu.

Bazkal ondoan uda ta negu  
loaren pixkat dut artzen;  
onek dit berriz lanaren griña  
barman neri pizkortzen;  
—eta pozarren, pozarren,  
ardoa edaten—,  
barruan neri pizkortzen.

Euskal erriko langille orok  
soiña bear du kementsu,  
jan-edanean neurri doi-doia,  
atsedenean berdintsu;  
—eta pozarren, pozarren,  
ardoa edaten—,  
astedenean berdintsu.

## **TXAKOLINA**

*Maasti bat nainoz dator ederki soro-gurenean. Badu lana iñausi, txertatu, iru aldiz beintzat supratu ta ostoetan gaitzik azaldu ezkeru, sulpatatu, aienak bereiztu, ta abar. Baiña jida-goienez gogo berekoa izan oi zaigu maats umotua, zuri naiz beltz, baserritar majan ere. Goxoago zitzaigu oraindik, udan eguzkiak ziztatzen gaitunean, txakolin*

**Doiñu:** 101 laboren i gaxua

Biotza dabilkit arin,  
egazka balitz egaztin:  
kanta zarrak dio ederki: «Txakolin eta txakolin!,  
atsegin aundiz edanda, txakoliñak dit on egin».

Txakolin zalea nauzu,  
adiskide amorratu;  
bazkal aurrean dut edaten, janariz ere urrupatu,  
edari bizi au etzait iñoiz etxean faltan,.

Badira maasti ta ardantzak ( 1).  
aien ta ostoz aratzak,  
laborani onak egiñik miiztxo izerdí azantzak (2),  
sail-lerro pixuz zanpatu, naiz eta izan zalantzak.

Nik ere badut nerea,  
eguzkira beti bea;  
samur dio agutaizeak eman arnas emea,  
eta urrillez pozik diot eskatzen mordo betea.

Ari askotarik daukat  
zuri, beltz eta gorrixkak:  
ezpaitira ere Naparru-n bezin guri-garaienak,  
bai bederen iñungori zorrikan ez diotenak.

Bada ardoa Naparra-n,  
baita Baigorri ta Araba-n;  
baiña txakolin ezin-obe Bizkai-ko Kantauri mugan,  
esku goxoz landutako egutera pendizetan.

()laxe dut nik maastia,  
arri ta sasiz garbia,  
pizti-etsaien aurkalari inguruan du esia,  
abe txiki ta zugazñoiz itzul-inguru ertsia.

---

(1) Maasti.

(2) Indar.

Zarautz, Getari, Orto,  
Ondarru. Luiu, Bakio  
txit dirala txakolintegi dionak egia dío;  
nereak ere zorrikan iñori ez, orraitto.

Badu aiotz-lanik naiko,  
urte barniz osatzeko:  
aien alper ausartak aiotz (3) n-takurrez ebakitzeko,  
lerro bitarte medarrak lur arrotan eukitzeko.

Gero ongarritu ederki,  
zomorroz zaitu osoki,  
azufre dute mazkaltzen zaindu gabeko maastiak:  
mildiu, txakarmalua agertu aurrez erauzi.

Baita usteldura zuriak  
ta zizari urdin jantziak  
osotoro dute mazkaltzen zaindu gabeko maastiak:  
maasti emankorrek bear ditu lei-antsi zoliak.

Goitik datorkit euria,  
goitik eguzki zutia,  
biok dute lurra pizkortzen eman-aziz janaria,  
biok orditzen didate bero ta ezoz maastia.

Maiz txakolin bearrean  
nekazaria etxean...  
Zergatik ez digu, ba, toki babes, aldapa barnean  
maatsondo sail bat landatzen uda-goiena eltzean?

Orrela egín nuen nik,  
eta aspalditxoan danik  
urrillez egin txakoliíez eztarria legundurik,  
lanari ekin oi diot, nekatu armen, alairik.

---

(3) Aizto aundi.

Udazkenez, leia gartsuan,  
gabiltza gu maats bilduan;  
ego aize epelez goaz otar ta guraizak eskuan...  
Gure poz-jario ziñez morda saillak batzorduan!

Prest dauzkagu maats usulak,  
prest baita tolare tresnak;  
zapal-opillez trinkaturik ale anpatu gurenak,  
or azaltzen dizkigute beuren gilborño gardenak,

Lan atsegiña dagit nik,  
aurrak ere lagundurik...  
Uztaillez izango dut, gero, edateko txakoliñik,  
neke-lorra Bakotiar odol gorritz gozaturik.

